

Erreklamazioak eta Iradokizunak egiteko bideak:

Familiak, ohiko bideez gain (Irakasle, Tutore, Zuzendaritza talde, Guraso Ordezkariek, Mailako gurasoen bilerak ebaluazioko, aurrez aurre, tfnoz), eta **posta elektronikoa** bera normaltasunez erabiltzen dela gogoan, internetez eta nahi izanez gero anonimotasuna gordez, honakoak erabil ditzakete:

1. Webguneko hasierako pantailan ageri den “harremanetarako” atala erabiliz, zein <http://www.elkarhezi.eus/harremana/> goi azpiatalaren bidez, zeinaren bidez, hitzorduak ere eska daitezkeen.

Honen bidez jasotzen direnak zuzenean doaz zuzendaritza taldera eta honek bere ohiko bileretan aztertu eta dagokion erantzuna ematen du.

2. [Gurasoen Elkarteko bloga](#)ren bidez, zeina Ikastetxeko webean ere estekatuta dagoen. Honen berri guraso guztiei eman zitzaien ikasturte hasierako bileretan eta txostenean. Bi atal ditu horretarako:

- [Galde-eskariak](#) atalaren bidez
- [Harremana](#) atalaren bidez.

Honen bidez egiten direnak, Gurasoen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak jasotzen ditu eta hilabetero Ikastetxeko zuzendaritzarekin egiten dituen bileretan aztertu eta dagozkien erantzunak ematen ditu.